



**ERRETERIA
UDALA**

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

Espediente zk./Nº expediente: 2024IGOB0011

Gaia/Asunto: 2024/06/18 Tokiko Gobernu Batzarra/Junta de Gobierno Local 18/06/2024

Tokiko Gobernu Batzarra 2024ko ekainaren 18an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.

Errenteriako Udaletxean, 2024ko ekainaren 18ko 09:30ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU), ondoko zinegotziak elkartu dira:

ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU

- Alazne Korta Zulaika
- Bernar Lemos Taberna
- Eñaut Gracia Ibarra

ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde

- Maite Gartzia Ontiveros
- Yolanda Martín Marcos

Bertan dago, egintza fedatzeko, Ainhoa Esnaola Zubeldia Idazkari orokorra.

1.- 2024ko ekainaren 04ren ohiko bilkurari dagokion akta irakurri eta, egoki bada, onartzea. (2024IGOB0010)

Oharririk gabe onartu da.

2.-2023-2027 hizkuntza ofizialen erabilera normalizatzeko plana onartzea. (2024ZBAR0003)

Acta de la sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 18 de junio de 2024.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:30 horas del día 18 de junio de 2024, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU), las siguientes concejales y concejales:

ORERETA/ERRETERIAKO EH BILDU

- Alazne Korta Zulaika
- Bernar Lemos Taberna
- Eñaut Gracia Ibarra

ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde

- Maite Gartzia Ontiveros
- Yolanda Martín Marcos

Asiste y da fe del Acto Secretaria general Ainhoa Esnaola Zubeldia.

1.- Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión ordinaria del 04 de junio de 2024. (2024IGOB0010)

Se aprueba sin observación alguna.

2.- Aprobación del plan de normalización del uso de las lenguas oficiales 2023-2027. (2024ZBAR0003)



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

AURREKARIAK

Autonomia Estatutuaren 6. artikulua xedatutakoaren arabera, euskara eta gaztelania, biak, Euskadiko hizkuntza ofizialak dira. Hori horrela, erakundeei dagokie bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu eta arautzea, baita hizkuntza ezagutzeko beharrezko neurriak xedatu eta arautzea ere.

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak Euskal Herriko Komunitate Autonomoko administrazio publikoetan euskararen erabilera eta normalizazioa arautu zuen. Ondorioz, administrazio bakoitzari dagokio, bere jardura esparruan, arau horiek indarrean jarri eta beharrezko bitartekoez arduratzea.

Hori kontuan hartuta, Errenteriako Udalak 1997ko martxoaren 18an egindako Osoko Bilkuran Errenteriako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatu eta Sustatzeko Udal Ordenantza onartu zuen, jardun osoa arautzeko asmoz, *“Udaleko zerbitzuak gure hizkuntzan ere eman ahal izatea, herritarrok behar eta eskatzen dugun neurrian”* xede hartuta. Ordenantzak, bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu eta babestu zuen eta gerora Udalak hartu dituen erabaki eta arauen oinarri izan zen.

Ordenantza eman zenetik pasa diren 27 urteetan, bi hizkuntza ofizialen erabilera normalizatzeko emandako legeak aintzat hartuta, Udalak plangintzaldietan antolatu du lana. Plangintzaldiak 5 urteko epeak dira eta Udalak bere buruari jartzen dizkion helburu estrategikoak jasotzeko tresnak dira, baita euskara eta gaztelania erabiltzeko irizpideak eta horiek gauzatzeko neurriak jasotzekoak ere.

Egun, VII. Plangintzaldira iritsita, 2023-2027 epealdirako hizkuntza ofizialen erabilera normalizatzeko 5. plana onartu nahi du Udalak.

ANTECEDENTES

El artículo 6 del Estatuto de Autonomía establece que el euskera y el castellano son las lenguas oficiales de Euskadi. En este sentido, corresponde a las instituciones garantizar y regular el uso de las dos lenguas oficiales, así como establecer y regular las medidas necesarias para el conocimiento de la lengua.

La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización reguló la normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En consecuencia, corresponde a cada administración, en su ámbito de actuación, dictar las normas y la provisión de los medios necesarios para su consecución.

Por ello, el Pleno del Ayuntamiento de Errenteria, en sesión celebrada el día 18 de marzo de 1997, aprobó la Ordenanza Municipal para la Normalización y Promoción del Uso del Euskera en el Ayuntamiento de Errenteria, con el fin de regular toda la actuación municipal y posibilitar la prestación de los servicios municipales en nuestra lengua, en la medida en que la ciudadanía lo necesita y lo demanda. La Ordenanza garantizó y apoyó el uso de las dos lenguas oficiales y sirvió de base a las decisiones y normas adoptadas posteriormente por el Ayuntamiento.

En los 27 años transcurridos desde que se dictó la Ordenanza, y teniendo en cuenta las leyes dictadas para la normalización del uso de las dos lenguas oficiales, el Ayuntamiento ha estructurado el trabajo de normalización en los diferentes periodos de planificación. Los periodos de planificación tienen una duración de 5 años y son el instrumento para recoger los objetivos estratégicos del Ayuntamiento, los criterios de uso del euskera y del castellano y las medidas para llevarlos a cabo.

Actualmente, dentro del VII. periodo de planificación, el Ayuntamiento quiere aprobar el 5º plan de normalización del uso de las lenguas oficiales para el periodo 2023-2027.



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

2018-2023 VI. Plangintzaldiaren indarraldia amaituta, 86/1997 Dekretuaren arabera, administrazioek epe berrirako plana onartu beharra dute plangintzaldiaren lehenengo urtearen barruan, Jaurlaritzak epealdiari dagokion normalizazio dekretua onartu ondoren. Dekretua onartu bitartean, Errenteriako Udalak komenigarritzat jo zuen plan berriaren oinarri izango ziren hizkuntza irizpideak berrikusi eta egokitzea. Izan ere, aurreko plangintzaldietan egindako lanaren ondorioz, irizpide batzuk zaharkituta gelditu ziren edo/eta jarritako helburuak areagotzeko modua ikusi zen, oinarri zen araudi markoari euskararen erabilera sustatzeari babes juridikoa eman dioten lege berriak ahaztu gabe.

Irizpideak lege horien ikuspegitik landu ziren, legearen berme osoz jarduteko. Funtsean, euskararen erabilera normalizatu eta herritarren eta langileen hizkuntza eskubideak bermatzea ez ezik, administrazio publikoan lan egiteak dakartzan betebeharrak ere jaso ziren.

Hizkuntza irizpideak definitzeko garaian zeharlerrotasunez jokatu eta kontrastea egin zen irizpideak inplementatzeko garaian zeresan zuzena zuten departamentuekin, langileen komiteari aholku eskatu zitzaion eta Hizkuntza Politikarako Kontseiluko kideei aurkeztu zitzaizkien, ekarpenak egin zitzaizkien.

Hizkuntza irizpideak VII. Plangintzaldirako plana prestatzeko abiapuntua izan dira. Plangintzaren lehenengo urtean, 2023an, lan horretan aritu da Udala.

Otsailaren 24an, 19/2024 Dekretuak, Euskal Sektorre Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzekoak, 1997ko Dekretua ordeztu du, hizkuntza normalizazioaren irizpideak garai berrietara egokituz eta euskal sektore publiko osoaren koordinazioa bermatuz. Helburu nagusia du herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzea eta euskararen erabilera sakontzea, neurri malgu, progresibo eta

Finalizado el VI período de planificación (2018-2023), según el Decreto 86/1997, las administraciones deben aprobar el plan a nuevo plazo dentro del primer año del periodo de planificación, una vez aprobado por el Gobierno el correspondiente decreto de normalización. Hasta la aprobación del Decreto, el Ayuntamiento de Errenteria consideró conveniente revisar y adecuar los criterios lingüísticos en los que se sustentaría el nuevo Plan. De hecho, como consecuencia del trabajo realizado en anteriores periodos de planificación, algunos criterios quedaron obsoletos y/o se vio la forma de incrementar los objetivos marcados, sin olvidar las nuevas leyes que han dado soporte jurídico a la normativa marco en la que se basaba la promoción del uso del euskera.

Los criterios se elaboraron desde el punto de vista de estas leyes para actuar con total garantía. Se recogieron, fundamentalmente, las obligaciones derivadas del trabajo en la administración pública, además de la normalización del uso del euskera y la garantía de los derechos lingüísticos de la ciudadanía y del personal trabajador.

A la hora de definir los criterios lingüísticos se actuó con transversalidad y se contrastó con los departamentos implicados en la implementación de los criterios, se solicitó asesoramiento al comité de personal y se presentaron a los miembros del Consejo de Política Lingüística para que realizaran sus aportaciones.

Los criterios lingüísticos han sido el punto de partida para la elaboración del Plan para el VII periodo de planificación. Durante el primer año, 2023, el Ayuntamiento ha trabajado en esta tarea.

El Decreto 19/2024, de 24 de febrero, de Normalización del Uso del Euskera en el Sector Público Vasco, sustituye al Decreto de 1997, adecúa los criterios de normalización lingüística a los nuevos tiempos y garantiza la coordinación de todo el sector público vasco. Su objetivo principal es garantizar los derechos lingüísticos de todos los ciudadanos y ciudadanas y profundizar en el uso del euskera



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

egingarrien bidez.

2. Metodologia

VII. Plangintzaldirako plana Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatutako KEMEN marko metodologikoa erabilia landu da. Hizkuntzen erabilera kudeatzeko ardatz, eremu eta arloak jasotzen ditu, baita horien neurketa ahalbidetzen duten adierazleak, eta lehentasunezko tokia aitortzen dio kudeaketari. Gainera, erabileran eragin handia duten kudeaketa adierazleak barnebiltzen ditu, hala nola jarraipena, zeharkakotasuna, kudeaketa sistematikoa, lidergoa, estrategia...

KEMEN metodologiak proposatutako egiturari jarraikiz antolatu da plana, bi ardatzetan:

KUDEAKETA. Euskara plana nola gestionatzen den: Udalak plana bultzatu eta kudeatzeko sistema egituratua duen, departamentu bakoitzak plana asumitu eta bultzatzen duen, planaren jarraipena nola egiten den, langileei plana nola komunikatzen zaien, langileek zer parte hartzen duten, zerbitzuak kontratatzean hizkuntza irizpiderik jartzen zaien eta abar.

Arlo hauek hartzen ditu: 1) euskararen kudeaketa orokorra, 2) lidergoa, 3) langileak, 4) hizkuntza-gaitasuna, 5) euskararen erabilera sustatzeko strategiaren komunikazioa eta 6) hizkuntza klausulak.

ERABILERA. Bai ahoz eta bai idatziz, udal barruan zein kanpoko eragile, erakunde eta enprekin dituen harremanetan Udalak zein hizkuntzatan funtzionatzen duen. Baita, idatziak zein hizkuntzatan sortzen diren ere.

Arlo hauek hartzen ditu:

Zerbitzu-hizkuntzaren barruan: 7) irudia eta 8) herritarrekiko harremanak.

Lan-hizkuntzaren barruan: 9) barne harremanak, 10) kanpo harremanak, 11) prestakuntza, 12) baliabide informatikoak eta 13) sortze-hizkuntza.

KEMEN markoak 48 adierazle proposatzen ditu, 20

mediante medidas flexibles, progresivas y factibles.

2. Metodología

El plan para el VII periodo de planificación se ha elaborado utilizando el marco metodológico KEMEN propuesto por la Viceconsejería de Política Lingüística. Recoge los ejes, ámbitos y áreas de gestión del uso de las lenguas, así como los indicadores que permiten su medición y reconoce a la gestión un lugar preferente. Además, incorpora indicadores de gestión de gran impacto en el uso, como seguimiento, transversalidad, gestión sistemática, liderazgo, estrategia, etc.

El plan se ha organizado de acuerdo a la estructura propuesta por la metodología KEMEN, en dos ejes:

GESTIÓN. Cómo se gestiona el plan de euskera: si el Ayuntamiento tiene un sistema estructurado de impulso y gestión del plan, si cada departamento asume e impulsa el plan, cómo se realiza el seguimiento del plan, cómo se comunica el plan al personal y cuál es su participación, si se aplican criterios lingüísticos en la contratación de los servicios, etc.

Comprende: 1) gestión general del euskera, 2) liderazgo, 3) personal, 4) competencia lingüística, 5) comunicación de la estrategia de promoción del uso del euskera y 6) cláusulas lingüísticas.

USO. Lengua en la que funciona el Ayuntamiento, tanto oralmente como por escrito, en sus relaciones con agentes, entidades y empresas, tanto dentro como fuera del Ayuntamiento. También la lengua en la que se producen los escritos.

Comprende las siguientes áreas:

Dentro de la lengua de servicio: 7) imagen y 8) relaciones con la ciudadanía.

Dentro de la lengua de trabajo: 9) relaciones internas, 10) relaciones externas, 11) formación, 12) recursos informáticos y 13) lengua de creación.

El marco KEMEN propone 48 indicadores, 20 para la



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

kudeaketarako eta 28 erabilerarako. Horietaz gain, beste bi adierazle sortu eta erabili dira (**1.0.7 *Udal idatzietan euskararen kalitatea zaintzea* eta *** 1.0.6.18 *Herri jabaria hartzeko lizentziak*). Hortaz, guztira 50 adierazle landu dira.

Informazioa jasotzeko hainbat galdetegi erabili dira eta aintzat hartu dira, besteak beste, 2015eko BIKAIN ebaluazioan aditu taldeak proposatutako hobekuntzarako palankak, 2021-206 ESEP plana eta arloka arduradunekin egindako bileretan eskuratutako informazioa.

Proposamenak eta Udal Hizkuntza Politikak berak egindakoak baturik, azken proposamena landu da eta Tokiko Gobernuan aurkeztu aurretik, bidezko txostenak eskatu dira:

- 2024ko apirilaren 22an Udaleko Komiteak Planaren alde dagoela adierazi du.

- 2024ko maiatzaren 6an Joseba Lozano Santos Herri Administrazioetan Hizkuntza normalizatzeko zuzendariak emandako txostenaren arabera, HPSK begi onez ikusten du Errenteriako Udalak egin duen euskararen erabilera plan-proposamena.

- Ainhoa Esnaola idazkari orokorrari txosten juridikoa eman dezala eskatu zaio.

3. Oinarrizko irizpideak

Planaren oinarri izango diren 10 irizpide nagusiok finkatu dira:

KUDEAKETA

1) Kudeaketa sistema. Euskararen erabileraren normalizazioa Udalaren kudeaketa orokorrean txertatuko da, era horretan udal organo eta departamentu bakoitzak bere arloko ardurak hartuta.

2) Jarraipena. Planaren jarraipen sistematikoa egingo da, adierazle-panelean zehaztutako informazioa jasota. Hizkuntza irizpideen betetze-maila neurtuta,

gestión y 28 para el uso. Además, se han creado y utilizado otros dos indicadores (**1.0.7 Calidad del euskera en los escritos municipales y *** 1.0.6.18 Licencias de dominio público). Por tanto, se han trabajado un total de 50 indicadores.

Para la recogida de información se han utilizado diferentes cuestionarios y se han tenido en cuenta, entre otros, las palancas de mejora propuestas por el grupo de personas expertas en la evaluación BIKAIN de 2015, el plan ESEP 2021-206 y la información obtenida en las reuniones con los y las responsables de departamentos.

Sumadas todas esas propuestas a las de Política Lingüística Municipal, se ha elaborado la propuesta final y se han solicitado los informes pertinentes antes de su presentación en la Junta de Gobierno Local:

- El 22 de abril de 2024 el Comité de personal ha manifestado su apoyo al Plan.

- El informe emitido por el director de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas, Joseba Lozano Santos, el 6 de mayo de 2024, la VPL es favorable a la propuesta de plan de uso del euskera elaborada por el Ayuntamiento de Errenteria.

- Se ha solicitado informe jurídico a la secretaria general, Ainhoa Esnaola.

3. Criterios básicos del Plan

Se han fijado los 10 principales criterios que servirán de base al Plan:

GESTIÓN

1) Sistema de gestión. La normalización del uso del euskera se integrará en la gestión general del Ayuntamiento y cada órgano y departamento municipal asumirá las responsabilidades que le correspondan.

2) Seguimiento. Se realizará un seguimiento sistemático del Plan recogiendo la información especificada en el panel de indicadores. La medición



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

beharrezko egokitzapenak egin ahal izango dira.

3) **Lidergoa, eredugarritasuna.** Udaleko kide guztiak, politikoak zein langileak, eredu izango dira euskarari dagokionez eta jarrera proaktiboa izango dute: eurek euskaraz egingo dute eta euskaraz egitea bultzatuko dute euren jardunean.

4) **Hizkuntza klausulak kontratazioetan, dirulaguntzetan eta herri jabaria hartzeko lizentzietan.** Hizkuntza irizpideak txertatuko dira enpresak kontratatzerakoan zein dirulaguntzak eman, hitzarmenak sinatu eta herri jabaria hartzeko lizentzietan, eta horien betetzearen jarraipena egiteko sistema definitu eta inplementatu egingo da.

2. ERABILERA

5) **Udaleko ohiko hizkuntza.** Euskara lan-hizkuntza izan dadin urratsak ematen jarraituko du Udalak.

6) **Irudia.** Udalaren irudia osatzen duten elementuak (errotulazioak, inprimakiak, webguneak, sare sozialak...) euskaraz edo euskarari ikusgarritasuna emanaz gauzatuko dira.

7) **Euskarazko harreman sarea.** Kanpo zein barne harremanetan euskara hutsezko harreman sarea sortzen eta zabaltzen jarraituko du Udalak: herritarrekin, enprekin, erakundeekin, elkarteekin...

8) **Sortze-hizkuntza.** Testuen sortze-hizkuntza euskara izango da horretarako izendatutako departamentu edo/eta espedienteetan eta horretarako hizkuntza gaitasuna duten langileek euskaraz jardungo dute. Ele bietan bideratu beharreko idatzietan, itzulpena Udal Hizkuntza Politikan egingo da, itzulpenetarako onartutako irizpideei jarraikiz.

9) **Ele bietakoetan euskarari ikusgarritasuna.** Ele bietan egin behar denean, euskarari ikusgarritasuna emango zaio, bai ahozkoetan eta bai idatzizkoetan.

del grado de cumplimiento de los criterios lingüísticos permitirá realizar las adaptaciones necesarias.

3) **Liderazgo, ejemplaridad.** Todos los miembros del Ayuntamiento, tanto políticos y políticas como personal, serán referentes en euskera y tendrán una actitud proactiva: hablarán en euskera y fomentarán el uso del euskera en su actividad.

4) **Cláusulas lingüísticas en las contrataciones, subvenciones y licencias de dominio público.** Se integrarán criterios lingüísticos tanto en la contratación de empresas como en las licencias de concesión de subvenciones, firma de convenios y licencias de ocupación de dominio público, y se definirá e implementará un sistema de seguimiento de su cumplimiento.

2. USO

5) **Lengua habitual del Ayuntamiento.** El Ayuntamiento seguirá dando los pasos necesarios para que el euskera sea lengua de trabajo.

6) **Imagen.** Elementos que componen la imagen municipal (rotulaciones, impresos, páginas web, red sociales...) se realizarán en euskera o dando visibilidad al euskera.

7) **Red de relaciones en euskera.** El Ayuntamiento continuará creando y extendiendo una red de relaciones en euskera en sus relaciones internas y externas: con la ciudadanía, empresas, instituciones, asociaciones...

8) **Lengua de creación de los documentos.** La lengua de creación de los textos será el euskera en los departamentos y/o expedientes designados al efecto y el personal con capacitación lingüística para ello trabajará en euskera. En los escritos bilingües, la traducción la realizará Política Lingüística Municipal, siguiendo los criterios aprobados para las traducciones.

9) **Visibilidad al euskera en los escritos y actividades bilingües.** Se dará visibilidad al euskera, tanto oralmente como por escrito. Siempre que sea



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

Ahal den guztietan euskarazko edo ele bietako idatziak egin behar diren aztertuko da.

10) Hizkera argia. Euskarazko testuetan kalitatea (ulergarritasuna eta zuzentasuna) ziurtatuko da, bereziki herritarrei bideratutakoetan.

Hizkuntza irizpideek irizpide nagusi horiek betetzeko jarraibideak barnebiltzen dituzte.

4. Planaren helburu nagusia

Helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea. Euskara herritarrentzako zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, administrazioaren lan-hizkuntza eta administrazioen eta entitateen arteko harremanetarako lan-hizkuntza izan dadin bermatzea.

Hori kontuan izanik, hau da plan honen bidez lortu nahi den helburua:

Erreteriarako Udalak euskararen arnagune izan nahi du eta aukera dagoen departamentu guztietan euskara lan-hizkuntza izango da, bai ahoz eta bai idatziz, eta kanpokoekin ere, ahal den guztietan, euskarazko funtzionamendua bultzatuko du.

Era berean, euskararen erabilera indartzeko helburu hori lortzeko bidean, planak badu beste helburu bat: kudeaketan jauzi kualitatibo bat ematea, kudeaketa eraginkorrago bat lortzea.

5. VII. Plangintzaldirako erronkak

Helburu nagusia lortze aldera, erronka hauek zehaztu dira:

KUDEAKETAri dagokionez:

- Helburuen jarraipen sistematikoa egitea, betetze maila neurtuta, beharrezko egokitzapenak egin ahal izateko.
- Erabilera planaren gaineko komunikazioa hobetzea,

posible se estudiará la conveniencia de realizar escritos en euskera o en bilingüe.

10) Lenguaje claro. Se asegurará la calidad (inteligibilidad y corrección) en los textos en euskera, especialmente en los dirigidos a la ciudadanía.

Los criterios lingüísticos contienen las pautas para cumplir estos criterios generales.

4. Objetivo general del Plan

El objetivo principal es decidir e impulsar las medidas de política lingüística necesarias para garantizar las posibilidades de vivir en euskera a la ciudadanía que así lo desee. Intensificar los pasos a favor del euskera para lograr la plena recuperación del euskera en Euskal Herria a nivel personal, social y oficial. Garantizar que el euskera sea, además de lengua de servicio para la ciudadanía, lengua de trabajo de la administración y lengua de trabajo en las relaciones entre administraciones y entidades.

Teniendo en cuenta esto, el objetivo que se persigue con este Plan es:

El Ayuntamiento de Erretería quiere nicho vital del euskera y en todos los departamentos donde sea posible, el euskera será la lengua de trabajo, tanto oral como escrita, y con el exterior, siempre que sea posible, fomentará el funcionamiento en euskera

Asimismo, el objetivo del plan es dar un salto cualitativo en la gestión, conseguir una gestión más eficaz y eficiente en la consecución de este objetivo de potenciar el uso del euskera.

5. VII. Retos para el periodo de planificación

Para alcanzar el objetivo general se han definido los siguientes retos:

En cuanto a la **GESTIÓN**:

- Realizar un seguimiento sistemático de los objetivos, midiendo su grado de cumplimiento, para poder realizar las adaptaciones necesarias.
- Mejorar la comunicación sobre el plan de uso, tanto



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

herrira begirakoa zein Udal barrura begirakoa.

- Politikoen zein langileen parte-hartzea sustatzea eta udal organo zein departamentu bakoitzak planarekiko ardurak hartzea, modu aktiboan parte hartzea eta eredugarri jokatzeko plana arrakastaz gauzatzeko bermea baita.

- Zeharlerroekin elkarlanean jarraitzea, lan-prozeduretan hizkuntza ikuspegiak gain, berdintasun eta aniztasun irizpideak txertatzeko.

- Udalerriaz gaindiko elkarlanarekin jarraitzea, bakarka zailak diren ekimenak elkarrekin bideratzeko.

- Zerbitzuen kontratazio publikoetan hizkuntza-klausula egokiak txertatzea eta haietan jasotakoa betetzen dela ziurtatzeko jarraipen sistematikoa egitea.

ERABILERAri dagokionez, berriz:

- Idatzizko komunikazioetan ahal den guztietan euskaraz egitea. Langile zein politikoen gaitasunaz baliatuta euskarazko departamentuak saretzea.

- Interes taldeekiko komunikazioak ahal den neurrian euskaraz bideratzea eta haiengandik jasotzen diren komunikazioetan euskarazko harremana bultzatzea.

ARAUDI APLIKAGARRIA

Arautegi orokorra

- Abenduaren 3ko 18/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutua.

- Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoa.

- 1989. 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Horri loturiko lehen plangintzaldian (1990-1995) helburu nagusia administrazioko langileak euskaraz jarduteko gaitzea izan zen.

hacia el municipio como en el Ayuntamiento.

- Fomentar la participación tanto de los políticos y políticas como del personal y asumir responsabilidades con el Plan por parte de los diferentes órganos y departamentos municipales, participando activamente y siendo ejemplar para la consecución del mismo con éxito.

- Continuar colaborando con las líneas transversales para incorporar criterios de igualdad y diversidad en los procedimientos de trabajo, además de la perspectiva lingüística.

- Continuar con la colaboración supramunicipal para encauzar iniciativas de manera conjunta.

- Incorporar cláusulas lingüísticas adecuadas en las contrataciones públicas de servicios y realizar un seguimiento sistemático del cumplimiento de lo establecido en las mismas.

En cuanto al **USO**:

- Expresarse en euskera siempre que sea posible en las comunicaciones escritas. Tejer redes de relación entre los departamentos de euskera, utilizando la competencia lingüística del personal y representantes políticos.

- En la medida de lo posible canalizar en euskera las comunicaciones con los grupos de interés y favorecer la relación en euskera en las comunicaciones que se reciban de ellos.

NORMATIVA APLICABLE

Normativa general

- Ley Orgánica 18/1979, de 3 de diciembre, Estatuto de Autonomía del País Vasco.

- Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera.

- 1989. Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca. En el primer periodo de planificación asociado (1990-1995) el objetivo principal fue capacitar al personal de la administración para el uso del euskera.



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

- 2003ko abenduaren 22ko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legeak eta 2008ko uztailearen 1eko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko 123/2008 Dekretuak ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzen die kontsumitzaile eta erabiltzaileei. Ondorioz, erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute.
 - Apirilaren 7ko 2/2016 Toki Erakundei buruzko Legea.
 - 2016ko abenduaren 17ko Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren Udal Garapena.
 - Azaroaren 19ko 179/2019 Dekretua, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
 - Maiatzaren 12ko 3/2022 Legea, Euskal Sektore Publikoarena.
 - Otsailaren 24ko 19/2024 Dekretua, Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzekoa.
- Errenteriako Udalak bere eskumenen baitan euskararen erabilera normalizatzeko hartutako erabakiak**
- 1997ko martxoaren 17an Errenteriako Udalbatzak onartutako Errenteriako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatu eta Sustatzeko Udal Ordenantza.
 - 2023ko otsailaren 22an Udal Tokiko Batzarrak onartutako 2021-2026 Plan Estrategikoa.
 - 2023ko martxoaren 21ean Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako Berdintasunerako III. Plana (2023-2031).
 - Errenteriako Udalean Hizkuntza Ofizialen Erabilera Normalizatzeko Plana. VI. Plangintzaldia (2028-2023)
- La Ley 6/2003, de 22 de diciembre, del Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarías y el Decreto 123/2008, de 1 de julio, sobre los derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias reconoce a las personas consumidoras y usuarias el derecho a recibir información sobre bienes y servicios tanto en euskera como en castellano. En consecuencia, las instituciones públicas garantizarán la presencia de las dos lenguas oficiales en las relaciones con las personas consumidoras y usuarias.
 - Ley 2/2016, de 7 de abril, de Entidades Locales.
 - Desarrollo Municipal del Protocolo para la Garantía de los Derechos Lingüísticos de 17 de diciembre de 2016.
 - Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las entidades locales del País Vasco.
 - Ley 3/2022, de 12 de mayo, del Sector Público Vasco.
 - Decreto 19/2024, de 24 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco.
- Acuerdos adoptados por el Ayuntamiento de Errenteria para la normalización del uso del euskera en el ámbito de sus competencias**
- Ordenanza Municipal para la Normalización y Fomento del Uso del Euskera en el Ayuntamiento de Errenteria, aprobada por el Pleno del Ayuntamiento de Errenteria el 17 de marzo de 1997.
 - Plan Estratégico 2021-2026, aprobado por el Pleno Municipal el 22 de febrero de 2023.
 - III Plan de Igualdad (2023-2031), aprobado por la Junta de Gobierno Local el 21 de marzo de 2023.
 - Plan de Normalización del Uso de las Lenguas Oficiales del Ayuntamiento de Errenteria. VI. Periodo



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

- 2023. VII. Plangintzaldian (2023-2027) Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

- 2024ko ekainaren 6an Arantxa Zabala Udala Hizkuntza Politikako teknikariak hizkuntza ofizialen erabilera normalizatzeko planaren (2023-2027) gaineko txostena eman du.

- 2024ko maiatzaren 24an Ainhoa Esnaola idazkari orokorrak txosten juridikoa eman du.

Horregatik guztiagatik, Udala honetako Alkateak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau

ERABAKI DU

- 1.- 2023-2027 hizkuntza ofizialen erabilera normalizatzeko plana onartzea.
- 2.- Plana udal web gunean argitaratzea.
- 3.- Udala departamentu guztiei berri ematea

3.- 28 zk.-ko Auto-Taxi (A maila) Udala lizentzia eskuz aldatzea. (2024UTLE0001)

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak 2011ko urriaren 21ean eginiko bilkuran **28.** zenbakidun Auto-Taxiaren udala lizentzia ustiatzeko baimena eman zion **OTEGUI ITURBE PEDRO JOSE**-ri.

2024ko maiatzaren 10ean, OTEGUI ITURBE PEDRO JOSE-k eskatu zuen aipatutako **28** zenbakidun Auto-Taxi lizentzia, **PEREZ RAMOS, ASIER**-i eskualdatzeko baimena.

de planificación (2028-2023).

- 2023. Criterios de uso de las lenguas oficiales en el VII. periodo de planificación (2023-2027).

- El 6 de junio de 2024 Arantxa Zabala, técnica de Política Lingüística Municipal ha informado sobre el plan de normalización del uso (2023-2027).

- El 24 de mayo de 2024 la secretaria general, Ainhoa Esnaola, ha emitido informe jurídico.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ACUERDA


- 1.- Aprobar el plan de normalización del uso de las lenguas oficiales 2023-2027.
- 2.- Publicar el plan en la web municipal.
- 3.- Informar a todos los departamentos municipales

3.- Transmisión de la Licencia Municipal de Auto-taxi (Clase A) nº 28. (2024UTLE0001)

ANTECEDENTES

Por acuerdo de la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 21 de octubre de 2011 se concedió a **OTEGUI ITURBE PEDRO JOSE**, autorización para la explotación de la licencia municipal de Auto-Taxi n.º **28**.

Con fecha 10 de mayo de 2024, OTEGUI ITURBE PEDRO JOSE solicita la transmisión de la citada licencia de Auto-Taxi n.º **28** a favor de **PEREZ RAMOS, ASIER**.



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

ZUZENBIDE OINARRIAK

- Errenteriako Auto-Taxi Zerbitzuaren udal-ordenantza 2013ko uztailaren 18an onartua.
- 2/2000 Legea, ekainaren 29koa, Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duena.
- 243/2002 Dekretua, urriaren 15ekoa, bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen Legearen Erregelamendua onartzen duena.

Taxi lizentzia 28 zenbakidunaren egun titularra denak eta baita titular berria izango denak ere agiriaren bitartez ziurtatu dute transmisioa burutu ahal izateko legerian ezarritako baldintzak betetzen dituztela. Erosleak xedapenetan ezartzen diren baldintzak bete dituela egiaztatu beharko du esku-aldatze Erabakia jakinarazten zaion hurrengo egunetik hasita **15 eguneko epean** esku-aldatzearen eraginkortasuna baldintza horiek betetzearen menpe gelditzen delarik.

Perez Ramos, Asier, udal gida baimena lortzeko froga egiteko deitua izan da eta baimen hori lortu du 2024ko ekainaren 07an.

Udaltzaingoko Ofizialburuak honi buruzko txostena egin du 2024ko ekainaren 07ean

Aipatutako Ordenantzan ezarritakoaren arabera, Gobernu Batzarraren eskumena da ondoko akordioa hartzea

Trafiko eta Garraioako delegatuak egindako erabaki-proposamena, eta idazkariak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatezatzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau

FUNDAMENTOS DE DERECHO

- Ordenanza Municipal del servicio de Auto-Taxi de Errenteria aprobada el 18 de julio de 2013.
- Ley 2/2000, de 29 de junio, de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles Turismo.
- Decreto 243/2002, de 15 de octubre, Reglamento de la Ley de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles Turismo.

Tanto el titular actual como la persona propuesta para ser el nuevo titular de la Licencia nº 28 han acreditado documentalmente el cumplimiento de parte de los requisitos establecidos en la legislación vigente para autorizar la transmisión de dicha licencia. El adquirente deberá acreditar los requisitos establecidos en la parte dispositiva en el **plazo de 15 días** a partir de la notificación del Acuerdo de transmisión, quedando la eficacia de dicha transmisión condicionada al cumplimiento de dichos requisitos.

Pérez Ramos, Asier habiendo sido convocado a la prueba para la obtención del permiso municipal de conductor, éste ha obtenido dicho permiso con fecha 07 de junio de 2024.

El Oficial Jefe de la Policía Local ha emitido informe al respecto con fecha 07 de junio de 2024.

Considerando que la aprobación de este acuerdo es competencia de esta Junta de Gobierno Local, por así establecerlo la citada Ordenanza

Vista la propuesta de acuerdo del delegado de Tráfico y Transporte y la conformidad dada por la Secretaria a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno



ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

ERABAKI DU:

1.- **Baimena ematea 28 zk.-ko Auto-Taxi (A maila) Udal lizentzia eskuz aldatzeko, Pérez Ramos, Asier-en alde, egungo titularra Otegui Iturbe ,Pedro José izanik, baldintzatuta lehenak erabaki honen jakinarazpena jaso eta HAMABOST EGUNEKO gehieneko epean, aurkeztu ditzan honako agiri hauek, beti ere horrela ez bada baimen hau eraginik gabe geratuko delarik:**

- Jarduera hasi izanaren zentsu-aitorpenaren kopia (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako).

- Gizarte Segurantzaren langile autonomoen erregimen berezian altan egotearen aitorpena.

- Lizentziari atxikita dagoen eta zerbitzua emateko erabiliko duen ibilgailuaren zirkulazioko baimena, eta eskuratu izana egiaztatzen duen dokumentazioa, betiere ibilgailua aldatzeko baldintzak betetzen baditu horrek.

Lizentziaren titular berriak eskualdatzailearen prestazioak mantendu beharko ditu.

Lizentziaren titular berriak ez badu eskatutako dokumentazioa aurkezten edo jakinarazitako hutsuneren bat ez badu horretarako emandako epean konpontzen, Auto-Taxiaren lizentziaren eskualdaketa eraginik gabe geratuko da.

2.- Lizentzia eskualdaketa hau hurrengo arauen menpe geratzen da, ekainaren 29ko 2/2000 Legea, bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duena, eta urriaren 15 eko 243/2002 Dekretua, Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen Legearen Erreglamendua. Aldi berean, 2013ko ekainaren 18an onartutako Taxi Zerbitzuaren Udal Ordenantziari, eta momento bakoitzean arlo horretan indarrean degoen gainerako

Local, por unanimidad,

ACUERDA:

1.- **Autorizar la transmisión** de la Licencia Municipal de Autotaxi (Clase A) nº 28 cuyo titular es Otegui Iturbe ,Pedro José en favor de Pérez Ramos, Asier, **condicionada a que este último presente en el plazo máximo de QUINCE DIAS contado a partir de la notificación del presente acuerdo, la siguiente documentación y quedando automáticamente sin efecto en caso contrario:**

- Copia de la declaración censal de comienzo de actividad a efectos del impuesto sobre la renta de las personas físicas y del impuesto sobre el valor añadido.

- Declaración de alta en el régimen especial de trabajadoras y trabajadores autónomos de la Seguridad Social.

- Permiso de circulación del vehículo adscrito a la licencia y con el que va a prestar servicio, y documentación acreditativa de haber obtenido la disposición del vehículo hasta el momento, u otro nuevo, siempre y cuando cumpla los requisitos previstos para la sustitución de los vehículos.

La nueva persona titular de la licencia deberá mantener las prestaciones del transmitente.

Si el nuevo titular de licencia no aportara la documentación requerida o no subsanara alguna deficiencia comunicada en el plazo concedido al efecto, quedará sin efecto la transmisión de la licencia de Auto-Taxi.

2.- Esta transmisión de licencia queda sometida a lo dispuesto en la Ley 2/2000 de 29 de junio, de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles Turismo y Decreto 243/2002, de 15 de octubre, Reglamento de la Ley de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles Turismo y la Ordenanza Municipal del Servicio de Auto-Taxi aprobada el 18 de junio de 2013, y normativa vigente en la materia en cada momento.



**ERRETERIA
UDALA**

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

legeria.

3.- Auto-taxi eta beste alokairuzko ibilgailuen lizentziak eta baimen administratiboak emateagatik tasa ezartzen duen Ordenantzak araututakoaren arabera dagozkion udal zergak ordaindu beharko da.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 9:41ak zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

3.- Se deberán abonar los correspondientes derechos municipales conforme a lo establecido en la Ordenanza Reguladora de la Tasa por otorgamiento de licencias y autorizaciones administrativas de Auto-taxis y demás vehículos de alquiler.

Y sin más asuntos de los que tratar, la presidenta levanta la sesión, siendo las 9:41 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta. La secretaria general.

Errenteria, 2024ko ekainaren 18a

Errenteria, 18 de junio de 2024

Idazkari orokorra / Secretaria general

Ainhoa Esnaola Zubeldia



EKS | CSV: **ESKUac522f76-cd2d-4acc-a06d-b4774a0187bc**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IGOB0011-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA)